3.1. ANESTESIAN ETA BIZKORTZEAN SEGURTASUNEKO NOTIFIKAZIO- SISTEMA (SENSAR), PAZIENTEEN SEGURTASUNA HOBETZEKO ERRONKA BERRIA

Aitziber Etxebarria, Zuriñe Lauzirika, Iratxe Gonzalez, Unai Ortega, Sorkunde Telletxea

Osakidetza. Galdakao-Usansolo Ospitalea. Anestesiologia, Bizkortzea eta Minaren Tratamendurako Unitatea.

SARRERA

SENSAR elkartea, anestesia eta bizkortze espezialitatearen arloan gertatzen diren jazoera kritikoen berri emateko eta analisia kudeatzeko xedez sortu zen lehen sistema da. Ospitale askok osatzen dute eta irabazi-asmorik gabeko elkartea da.

SENSAR
Sistema Español de Notificación en Seguridad en Anestesia y Reanimación

HELBURUA

- **Anestesia, bizkortze eta minaren tratamendurako unitateetan segurtasunaren kultura sustatzea.**
- **Pazientearen segurtasunaren aldeko prozedura eta gida klinikoak garatzea.**

METODOAK

ANESTIC datu-basearen bitartez, pazientearen segurtasun-tartea gutxitzen duten edo gutxitu dezaketen jazoerak jakinarazten dira.

Ospitale bakoitzean sortutako batzordeko adituek gertaerak aztertzen dituzte. Ondoren, hobetzeko neurriak proposatzen dituzte eta, hala behar denean, segurtasun alertak sortu. Neurri edo alerta hauek ospitaleen artean batera ipintzen dira.

EMAITZAK

Proiektu berria da eta oraindik emaitzei buruz hitz egiteko goiz da. Azken urteetan ospitale asko gehitu zaizkio, eta lagina oso heterogeneoa da momentuz.

ONDORIOAK

- **Gertakariak biltzea ez da helburua, osasun sistemaren ahulguneak jakinaraztea baizik.**
- **Gertatzen dena jakitea ez da nahikoa, neurriak hartu behar dira.**
- **Analisia eta *feedback*a oinarrizkoak dira.**
- **Aldaketa kulturala funtsezkoa da eta denbora behar du.**